



Genero indarkeriaren aurka

Oarsoaldeko udalek asteburuan Lezon, Getxon eta Errenterian izan diren eraso sexistak salatu nahi dituzte, eta herritarrei gaurko antolatu den elkarretaratzean parte hartzeko deia egiten diete.

Lezoko Udalak igandean gazte lezoar batek jasandako eraso ez ezik, Getxon eta Errenterian izandako eraso sexistak salatu nahi ditu. Horien aurrean Udalak adierazi nahi du jendaurrean eta aho batez, emakumeenganako indarkeria kasu guztiak gaitzesten dituela. Horrelako gertaerak ez dira onartzen gure gizartean, eta horregatik, erakundeek, elkarteek eta herritarrek lanean jarraitu behar dute, emakumeak indarkeria matxistarik gabe bizi daitezen.

Helburu horretan, instituzioek eta herritarrek bat egin behar dute, guztion arduraren baita indarkeria sexisten aurrean erantzun egokia ematea eta indarkeria sexistak ekiditeko baliabideak jartzea. Horren harira, txalotzekoa da Lezoko kasuan herritarrek erasoaren aurrean izan duten jarrera, haiek eskaintako laguntzari esker, erasotzaileak ez baitzuen bere xedea lortu.

Lezoko Udalak beharrezko eta premiazko jotzen du mekanismo guztiak artikulatzea berdintasuneko gizartea eraikitzeko, eta bide horretan hasitako bidearekin jarraituko du berdintasun-politikak hauspotuz edota indarkeriaren aurkako ekintzak antolatuz.

Era berean, Oarsoaldeko udalek, Errenterriako Berdintasunerako Kontseiluak eta Pasaiaiko Emakumeen Mahaiak bat egingo dute Lezoko elkarteek eta hainbat herritarrek eraso sexista salatzeko herriko plazan antolatu duten elkarretaratzearekin. Gaur izango da kontzentrazioa, hilaren 27an, arratsaldeko 19:30ean. Bide batez, herritarrei bertan parte hartzeko deia egiten zaie.

En contra de la violencia de género

Los ayuntamientos de Oarsoaldea denuncian los ataques sexistas llevados a cabo este fin de semana en Lezo, Getxo y Errenteria, y convocan a la ciudadanía a participar en la concentración que se ha organizado para hoy.

El Ayuntamiento de Lezo denuncia además del suceso sexista sufrido el domingo por una joven del municipio, los ataques sexistas que se han dado tanto en Getxo, como en Errenteria. Ante hechos así, el Ayuntamiento manifiesta públicamente y de manera unánime, su rechazo ante la violencia contra las mujeres. Este tipo de sucesos no tiene cabida en nuestra sociedad, y por tanto, las asociaciones, las instituciones y la ciudadanía deben seguir trabajando para que las mujeres vivan libres de violencia machista.

Para tal fin, las instituciones y los/las ciudadanos/as deben estar unidos, ya que es responsabilidad de todos/as dar una respuesta adecuada y poner los medios necesarios para evitar la violencia machista. De este modo, en el suceso de Lezo la actitud de la ciudadanía ha sido elogiada, puesto que gracias a su colaboración el atacante no ha podido cumplir su objetivo.

El Ayuntamiento de Lezo estima que es necesario e imprescindible articular todo tipo de mecanismos para la construcción de una sociedad en igualdad, y para alcanzar dicho fin continuará promoviendo políticas de igualdad y organizando actos en contra de la violencia.

Asimismo, los ayuntamientos de Oarsoaldea, junto con el Consejo de Igualdad de Errenteria y la Mesa de las Mujeres de Pasaia apoyarán la concentración convocada por las asociaciones de Lezo y varios ciudadanos/as que se llevará a cabo hoy, día 27, a las 19:30 horas en la plaza del municipio. A su vez, llama a la ciudadanía a que se sume a dicho acto.